


# Mendebaldeko Niloko sukarra gaixotasuna (West Nile virus)



Mendebaldeko Niloko Haraneko Sukarra (MNS) gaixotasun birikoa da, mundu osoan ageri den Mendebaldeko Niloko birusaren (MNB) andui jakin batzuek eragina. Animalia-gaixotasun bat da, **nahitaez aitortu beharrekoa. Nagusiki ekidoei eta pertsonei eragiten die** eta endemikotzat jotzen da Espainian. Nolanahi ere gaixotasuna jasan dezakete, halaber, antzarek, ahateek eta etxeoak ez diren hegaztiak.

**Ekidoetan nahiz gizakiengan, MNBak eragindako infekzio gehienak asintomatikoak dira (80%),** nahiz eta sintomatologia aurkezten bada, infekzioaren adierazpen larriena entzefalitisa den, eta **laborategiko diagnostikoa behar du.**

**Transmisioa eltxoen** (Culex generoa) **ziztaden** bitartez gauzatzen da nagusiki, eta eltxo-hegazti-eltxo transmisio-zikloari esker mantentzen da. **Hegazti migratzaileek zeregin oso garrantzitsua** dute birusaren mantentzean eta barreiaduran beren ibilbideetan; izan ere, gaixotasunaren **gordailutzat** hartzen dira, eta birusa mantentzeko gai dira, kasu batzuetan sintomarik izan gabe. **Gizakiak eta ekidoak birusaren azken ostalariak dira, eta, beraz, ez dute gaixotasuna transmititzen.**

Prebentzioa **ingurumena kontrolatzeko ekintzetan** oinarritzen da, besteak beste honako hauetan: kaltetutako eremuak **fumigatzea**, uxatzaileak eta/edo desinfektatzaileak erabiltzea eta kanpora ez irtetea bektorearen jarduera-ordu nagusietan.

Gaixotasun infekzioso **ez kutsakorra da**, Flaviviridae familiako arbobirus batek eragiten duena, eta gizakiei, zaldiei eta hegaztiei eragiten die. Intsektuen ziztaden bitartez transmititzen da eta sintomatologia neurologikoa izaten du.

Ornodunei eragiten die, **nagusiki ugaztunei (ekidoak eta gizakiak,** azken ostalari gisa; eta gaixotasuna jasaten dute) eta hegaztiei (antzarak, ahateak eta etxeoak ez diren hegaztiak; gaixotasuna jasaten ez duten gordailu gisa).

Bai, MNSa **OIERi eta EBri nahitaez aitortu beharreko** gaixotasuna da.

**MNSa ez da osasun publikorako arriskua,** ZONOSI bat delako. Gizakiei eragiten die, eta birusaren **azken ostalaritzat** hartu arren, kutsatu daiteke, baina **ez du gaixotasuna transmititzen.**

**Pertsonengan, gehiengoa** kasu **asintomatikoak** dira, nahiz eta sukar moderatua, buruko mina edo gongoil-hantura izan dezaketen. **Adinekoengan** konplikazioak ager daitezke sintomatologia neurologikoarekin.

Gaur egun, MNBa da munduan zabalduen dagoen arbobirusa, eta **kontinente guztietan** ageri da, **Antartikan izan ezik**.

Banaketa geografikoa **hegazti migratzaileen ibilbide nagusiekin lotuta dago**; izan ere gaixotasunaren gordailutzat hartzen dira, eta zeregin oso garrantzitsua dute birusaren mantentzean eta barreiaduran.

Epidemia handienak **Ameriketako Estatu Batuetan, Israelen, Grezian, Errumanian eta Errusian** gertatu dira.

**Espanian**, 2020ko udan, agerraldi larria egon zen hainbat fokurekin; horietan, ekidoek eta gizakiek sintomatologia neurologikoa izan zuten (meningoentzefalitisa).

**Gaixotasun horrek mundu osoan duen agerpen berri eta xehatuei buruzko informazioa eskuratzeko, munduko informazio zoosanitarioari buruzko OIEren (WAHID) datu-basearen interfazea kontsulta daiteke:**

MNBaren epidemiologia aldatu egiten da transmisio-zikloan eragin handia duten **hainbat faktoreren** arabera, hala nola:

- ostalariaren biremia-maila
- biremiaren iraupena
- bektorearen ugaritasuna
- eguraldia
- ostalari gaitzikorren dentsitatea

**Hegaztiak gaixotasunaren gordailutzat** hartzen dira, hau da, birusa mantentzeko gai dira, kasu batzuetan sintomarik izan gabe. Birus hori mantendu egiten da **eltxo-hegazti-eltxo transmisio-zikloari**

**Gizakiak eta ekidoak** dira birusaren **azken ostalariak**, eta, beraz, ez dute gaixotasuna transmititzen.

Balizko **transmisio-bideak hauek** dira:

- Zeharkakoa: mekanikoa edo bektore biologikoen ziztaden bidezkoa, hala nola nagusiki **Culex generoko eltxoak**, baina baliteke, hein txikiagoan bada ere, beste artropodo batzuek parte hartzea, hala nola birusarekin infektatutako akainak, euliak eta zorriak.
- Bektorearen barruan: eltxoan obulutegiaren bidezko transmisioa egiten da, eta, beraz, birusa amagandik arrautzetara igarotzen da, eta, horrela, eltxoen hurrengo belaunaldiari.

**Birusaren hedapena** hegazti migratzaileen ibilbide nagusiekin lotuta dago. Eltxoak birusa transmititzen die hegazti horiei ziztada bidez. Birusa hedatzeko **habitat optimoa** hegazti migratzaile eta eltxo ugariak ibaien deltak, eremu zingiratsuak edo aintzirak dira.

**Ekidoetan** (eta gizakiengan), MNBaren infekzio gehienak **asintomatikoak** dira (**% 80**). Sintomatologia klinikoa izanez gero, infekzioaren adierazpen larriena **entzefalitisa** da.

Birusak garunari eta nerbio-sistema periferikoari eragiten dio nagusiki. Horregatik, sintomen artean

daude, besteak beste, **jokabide-aldaketak, hiperestesia, muskulu-kontrakturak, erorikoak edo mugimendu zirkularrak**. Gaixotasunak **aurrera eginez gero**, animaliek **konbultsioak eta zutik egoteko ezintasuna** izan ditzakete. Infektatutako animalien ia **heren bat hiltzen** da, eta gainerakoak sendatu.

MNSaren susmoak zeinu klinikoak behatzean oinarritu daitezke, baina diagnostikoa laborategiko proben bitartez baieztatu behar da:

**Diagnostiko diferentziala.** Hasierako diagnostikoa sintomatologia nerbiosoa agertzean oinarritzen da ekidoetan, edo aurkikuntza natomopatologikoekin hegaztietan.

Hegaztietan, bereizi egin behar da Newcastle gaixotasunetik (hegazti-gripe oso patogenoa), azetilkoesterasa-inhibitzaileengatiko intoxikazioetatik, salmonellositik eta ornitositik.

Zaldietan, beste entzefalitis biriko batzuetatik.

**Laborategiko diagnostikoa.** Laborategiko diagnostikoaren oinarria zuzenean antzemateko probak eta proba serologikoak izango dira:

- PCR bidez zuzenean antzemateko probak: aztertu beharreko laginak likido zefalorrakidea, garuna, giltzurrunak edo bihotza izango dira.
- Proba serologikoak: ELISA eta/edo seroneutralizazioa; langin egokienak serum eta likido zefalorrakidea izango dira eta funtsean IgM eta IgG motako immunoglobulinak antzemango dira.

Prebentzioa, funtsean, arrisku handiko eremuetan balizko bektoreekiko esposizio-arriskua murrizten duten neurriak hartzean oinarritzen da, besteak beste hauek:

- Uxatzaileak eta/edo desinfektatzaileak erabiltzea.
- Kanpora ez irtetea bektorearen jarduera-ordu nagusietan.

**Bestalde, ekidoetan erabiltzeko txertoa dago.** Ameriketako Estatu Batuetan erabili da eta berriki baimendu da Europar Batasunean merkaturatzeko. Txerto inaktibatua da, eta 6 hiletik gorako zaldiak txertatzeko aholkatzen da.

**Albaitaritzaren arloan,** estatuko Zaintza Plan bat dago, eltxo, hegazti eta zaldiak ardatz dituen, eta hainbat kontsiderazio hartzen ditu kontuan:

- Gaixotasunaren bektoreak eltxoak dira, normalean *Culex* generokoak; hortaz, Zaintza Planaren jomuga horiek bizirik irauteko baldintza klimatiko egokiak dauden eremuak izango dira.
- **Hegazti urtar migratzaileek dute egiteko nagusia birusa herrialde batetik bestera barreiatzean; izan ere, gordailu epidemiologiko nagusia dira.**
- Hegazti migratzaile eta eltxo ugariko hezeguneak, hala nola ibaien deltak, eremu zingiratsuak edo aintzirak habitat optimoak dira gaixotasuna hedatzeko, eta, beraz, zaindu beharreko eremu arriskutsuak.
- Zaldiek zeregin nabarmena dute zelatari gisa; izan ere, gaixotasuna transmititzen duen bektorearen ziztada jasateko esposizio handiagoa dute gizakiek baino.
- [RD 526/2014](#)
- [Buscador de legislación](#)
- [Fiebre del Nilo Occidental](#) MAPA
- [Tríptico Programa de Vigilancia](#) MAPA
- [Tríptico FNO](#) Junta de Andalucía

- [Fiebre del Nilo Occidental-Visavet](#)
- [Ficha Fiebre del Nilo Occidental- IOWA STATE UNIVERSITY](#)
- [West Nile Encephalomyelitis in Horses- Merck Manual](#)[The European Union One Health 2018 Zoonoses Report](#)